

Kantu batzuk

Bildumak Jokin Irungarairen eta Ikas euskal dokumentazio zerbitzuko dokumentazio gunearen proposamenak batzen ditu.

Kaskarroten eske kantua : (Itsasu-Luhuso-Lekorne ...) Agur etxeko andrea, Begia duzu xarmanta, Zure ganik nahi ginuzke, Xingarra eta lukinka. Heldu gira urrundik, Gaua bidean emanik, Gaua bidean emanik eta, Ihauteriak entzunik. Landan eder keeta, Baxe Nabarren Heleta, Zerbait merexi ginuke, Handik hunat jineta. Goazen, goazen hemendik, Hemen ez dago xingarrik, Etxe huntako gazi-kutxan, Saguak umeak egin-tik.	Kaskarroten desfile kantua (Uztaritze partikulazki, bainan besteetan ere) Biper eta tomate, Baratxuria dut maite, Barneko xixariak Atakatzen naute. Sarako ihauteria (Trikili) Xanti eta andere Emen gare gu ere. Xanti jaunak igortzen gaitu xingarketa gu ere. Ez dut galdetzen xerria, Ez eta ere erdia, Liberako zatia edo, gerren hunen bethia.	Beste famatu bat : Ihauteriak sakatrapu, Atuna saretik eskapatu. Aurten da moda berri, Dantzan hastean altxa ipurdi Etxeko andre galanta (Trikili) Etxeko-andre galanta, Begia duzu xarmanta; Zureganik nahi nuke Xingarra edo lukainka. Eztut nahi azpi osua, Ez eta ere erdia; Zeronek pikaturik Liberako zatia. Heldu gira urrundik Gaua bidean emanik Gaua bidean emanik Ihauteriak entzunik.
Ihauteriak (Solorzano) Hunkitu dugu negu miña, Aintzina doa otsaila. Igan gaitezen selaurura Traputzar jauntziren bila. Trapu gorri eta hori Trapu xuri ta zehargi Ihauteriak ditugu Denak gaitezen maskatu Ni naiz otso beltz, mutur zorrotz, Ni hartz lodi bat buztan motz. Ni naiz sorgin panpiñatua, Ni zimino espantua Herriko plazan agertu da, Pantzar itsusi ohoina Erre behar da hobenduna Jo musika hasi dantza.	Zanpantzarrek badakite (Kantuz/Trikili/Oskorri...) Zanpantzarrek badakite Trikun trakun egiten, Trikun trakun egin eta Oilaskoen ebasten. <i>Ai urdea ! Ai urdea ! Urde San Pantzar lodia.</i> Zanpantzarrek badakite Oilaskoen ebasten, Oilaskoen ebats eta Sasipean gordetzen. <i>Lou Peirutun, lou Peirutun Lou Praubo praubo Peirutun.</i> Zanpantzarrek badakite Sasipean gordetzen, Eltze zarrean egosten Salda onaren egiten. <i>Ai urdea ! Ai urdea !</i>	Zanpantzarrek badakite Salda onaren egiten, Bai eta haien haurrek Katiluan edaten. <i>Lou Peirutun, lou Peirutun...</i> Zanpantzarrek erosi du Lau sosetan ogia, Lagunari saldu dio Bost sosetan erdia. <i>Ai urdea ! Ai urdea !</i> ***** Erreferentziak - <i>Trikili trakala. Ihauteriko kantuak eta dantzak.</i> Makeako eta Mendiando eskolak - Solorzano, Pantxika. <i>Kukuka.</i> Ikas euskal pedagogia zerbitzua, 2002 - Etxemendi, Paul ; Lafitte, Pierre. <i>Kantuz.</i> Elkarlanean, 2000

Santibatek andere

Bere aire zaharrean

(Egun hartako eskaleak, etxe aitzinera, beren gerrenekin heldu direlarik)

1 Santibatek, andere, Aurten bezala, gero're, Santibatek igortzen gaitu xingarketa gu ere. 2 Ez gabiltza ederrez, Ez eta erre beharrez, <i>Kostuma zaharraren uztez, erreprotxa beldurrez.</i> 3 Tolos'eta Baiona... Jainkoak dautzul'egun ona ! Guri xingarraren ematera, jeiki bazinte huna ! 4 Ez dugu nahi urdia, ez t'ere erdia, Usaiagatik, kostumagatik, <i>liberako</i> zatia, Liberako zatia eta gerrenaren betea. 5 Ez dugu nahi tripotik, <i>Bertzean</i> izan ez denik, Beldurrez eta tronpa gaitzazten... urdek...kaz beterik. (<i>Etxek'andereari lausenguak</i>) 6 Etxean eder gerrena... Etxek' andere lerdena, Zur'eriko eraztun hortaz eros niro Baiona ! 7 Etxean eder kortzeiru, Dabiltzanean inguru... Etxe honetako etxek' anderea, Parabisuan aingeru ! 8 Etxean eder holako, Haurra sortzen deneko... Etxe honetako etxek' anderea zaldiz elizarako, Zaldiz elizarako, eta zilar kadiran jarriko !	9 Landan eder ilarra, Haren pean belarra... Etxe honetako etxek' anderea, zer emazte xilarra ! 10 Etxean eder ferreta, Haren gainean kaneta... Etxe honetako etxek' anderea, zer emazte plaxenta ! (<i>Nausiari, erdi lausengu, erdi mehatxu</i>) 11 Etxean eder aitzurra... Na(g)usi bilo izurra, Kolputto bat eman ezaguzu busti dezagun zintzurra ! 12 Kadiran zaude jarririk, Koloriak gorririk ; Guri xingarren ematera jeiki bazinte hortik ! (<i>Eskerren bihurtzea</i>) 13 Eman duzu nobleki, Konpainiak ere badaki ; Parabisuan sar zaitezela, hamabi aingeruekin, Hamabi aingeruekin eta zure familiarekin! (<i>Deus ukaiten ez dutelarik</i>) 14 Goazen, goazen hemendik, Hemen ez duk xingarrik ; Etxe huntako gazitei xarrian sagiak umiak hazten tik ! 15 Etxean eder aihotza... Etxek' andere hortz motza, Su burdinaz hauts ditzatzula sudur eta kokotza ! X. X. X. Gure Herria Seigarren urtea – Sixième année - 2 Otsaila – Février 1926
---	---